

begoñazpi

ale berezia



KOLOREA
IRUDIMENA
AHALEGINA
IKASKUNTZA

ARATUSTEAK

BEGOÑAZPI IKASTOLAN, ARATUSTEAK HEZKUNTZA AUKERA PAREGABEA DIRA. HOLAN ERAKUTSI DABE HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO NESKA-MUTILEK.

FESTA ZIRRARAGARRI ETA HEZITZAILEA



Itzelezko kolore erakustaldia, irudimena, sormena, ahalegina eta ikaskuntza. Dana dala, Begoñazpi Ikastolan aratusteak be hezkuntza aukera paregabea dira. Holan erakutsi dabe Haur eta Lehen Hezkuntzako neska-mutilek festa zirrara garri eta hezitzaile honetan.



Lehen Hezkuntzan, bitzta osoko ipuinak egia bihurtu dira: hiru txarrikumeak, Edurnezuri, Txanogorritxo, Hamelingo txirularia... Eta protagonistek ederto antzestu dabez pertsonaiok. Ikasleei erronka ederto baten gaintitzeaz gain, ipuinen zentzua aztertzeke be balio izan deutse. Esperientzia ederra. Hementxe dozue grabazio osoa.

Eta aipamen berezia merezi dabe irakasleek, jaialdian bete-betean murgildu dira eta. Gogoia, bizitasuna eta irudimena nagusi!



Itsas munduak Ikastolako **Haur Hezkuntzako** txikienei habitat liluragarrian murgiltzeko eta dakiena baino gehiago jakiteko balio izan deutse. Jakina, ilusioz betetako eguna izan dabe.



Familioi be, eskerrik asko Begoñazpi Ikastolako aratusteetako ospakizunetan parte hartzeagaitik. Gure hezkuntza proiektuan oinarritzko eta garrantzitsuak zarie eta.